

DATORRENA

Suteen fokua eta muturreko oportunistak AIORA ZABALA ➤ 3

SCHENGEN, ITZALITA: Ituna sinatu eta 40 urtera, mugak sendotzen ari dira ➤ 4

2025eko abuztuaren 30a | XIX. urtea • 942. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GERMAN INTXAUSTI, TOLOSALDEA
ARGAZKITAN JASO ZUEN ALEGIARRA

GERMAN INTXAUSTIK ARGAZKILARITZA ZUEN OFIZIO ETA TXISTUA, AFIZIO. ALEGIAN ARGAZKI-DENDA ZUEN ETA TXISTULARI IBILERETAN ERE ARGAZKI MORDOA JASO ZITUEN, ARTXIBO OPAROA OSATUZ. 2026AN EHUN URTE BETEKO DIRA JAIO ZENETIK. IRUDIAN, BERE SEME RIKARDO, AITAREN LABORATEGIAN. ➤ 10 Jon URBE | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxe: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Schengengo Ituna sinatu eta 40 urtera, mugak, desagertu ordez, sendotzen ari dira 04


Ikusmira: Mariam, Mohammad, Hussam... Javier Guillen 07

German Intxausti, Tolosaldea iruditan gorde zuen argazkilari eta txistulari alegiarra 10

Gertuko Planak: Bizkaiko Flyscha, ehunka milioi urteko historia kontatzen duen liburua 14

Euskal Herria Digitala: Algoritmoak bizi gaitu 18

Juantxo Egañaren behatzulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Aiora Zabala:** Suteen fokua eta muturreko oportunistak
- 08 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Taldeak
- 09 **Ramon Sola:** Jon eta Anjel egungo piratekin
- 16 **Fernando Trebol Unzue:** Garunaren ideia irrazionalak
- 17 **Iker Barandiaran:** Aitaren, semearen...
- 20 **Amaia Ballesteros**
- 21 **Maidier Iantzi Goienetxe:** Nondik
- 21 **Xabier Mikel Errekondo:** Zauria
- 22 **Olatz Arbelaitz Gallego:** Ikergazte: 10 urte teknologia digitalari ere ekarpenak egiten

{ datorrena } **Aiora ZABALA**

Suteen fokua eta muturreko oportunistak

Adierazpen eta (des)informazioaren nahasmenean erraza da norabidea galtzea. Hori baita desinformatzailearen helburua: sinesten dugunarengan dugun konfiantza kolokan jartzea. Baina ez dugu iparra galdu behar. Suteen inpaktuak etorkizunean handitu ez daitezen, ekimen anitzeko estrategiak behar dira, eta askoren artean –denon artean– lagunduta.

Bizkaiko eta Arabako baso guzti-guztiak bi astetan erre izan balira bezala. Horixe izan da espainiar Estatuan abuztuan gertatutako suteetan erre den azalera. Banakako suteen tamaina, bortiztasuna eta bizkortasuna ere ezezaguna da bertako hurbileko historian. Haietariko askok suhiltzaileak ustekabeen hartu dituzte, ezagutza eta esperientzia izugarria izanda ere.

Arazo konplexu honek eztabaida konplexua dakar. Suteen larritasuna ez da suteak itzaltzeko baliabideen murriztapenengatik bakarrik. Ez eta aldaketa klimati-koarengatik bakarrik ere. Ez eta piromanoengatik ere. Edo suteen prebentzio eskasarengatik. Edo landa eremuan abandonaturiko jarduerengatik. Arrazoi horien guztiengatik bada, ordea (eta beste hainbeste arrazoiengatik). Hortaz, irtenbideak ere asko dira.

Talde bakoitzak irtenbide baten alde argudiatzen du. Gai politiko konplexuetan bakoitzak bere interesen alde oihu egin ohi du. Eta, batez ere, ultraeskuinak eta eskuin kutsua duten aktoreak bezalako muturreko oportunistek. Horrelako aukerak aprobetxatzen dituzte narratiba beren agendaren alde bultzatzeko: hemengo gobernuak ez duela hori egiten, hango kolekti-boak kalte egiten duela... beti haien etsaien aurkako narratiba hedatzeko. Bost axola zaie oinarritzko arazoa (suteek dakarten suntsipena) konpondu edo saihestea.

Mezu eta informazio katramila horretan erraza da gezur hutsak hedatzea, jendea nahasteko. Horixe da ideologia zabaltzeko estrategia bat, ideologia berezi bat zabaltzeko estrategia, alegia: besteek sinesten dutena zalantzan jartzea, ikertutakoa eta behatutakoa egia denetz zeure buruari galde eginaraztea. *Gasligh-*

ting-a antzeko trikimailua iruditzen zait: “norbait bere pentsamendu, sinesmen eta pertzepzioei buruz zalantzan jartzeko prozesua”. Baina pertsonen artean (psikologian definitu bezala) egin ordez, kolektiboen artean eta mezu publikoen bidez. Uste duguna, daki-guna, aztertzen duguna, ikusten duguna... zalantzan jarraraztean datza. Gure oinarritzko sinesmenak aldatzea du helburu. Baita gure pertzepzioan dugun konfiantza murriztea ere. Hori dena inplizituki, gu konturatu gabe. Gure pentsamenduan zalantza horiek hedatutakoan, gezurrak sartzea errazagoa da –klima ukazioa bezalako gezurrak–.

Gezurren artean, klima ukazioa iruditzen zait arris-kutsuenetakoa, gizakiaren ekintzek eragindako klima-aldaketa egia ez dela dioen argudioa. Batez ere gure eta gureen etorkizunaren onerako adi-adi egon behar dugun garai honetan: prebenitzeko hainbat estrategia lantzeko, suteak ekiditeko kudeaketan inbertitzeko, landa eremuko jarduerak eta bizia bultzatzeko, basoe-tako zuhaitz espezieak ongi hautatzeko, suhiltzaileen baliabideak sendotzeko, paisaia mailan ura hobeto kudeatzeko, herri eta hirietako eraikuntzak babesteko eta beste hainbatetarako.

Politikariren batek esan zuen ez zuela merezi suhiltzaileen operatiboa urte osoan mantentzea: inplizitu-ki zioen suteak udan bakarrik gertatzen direla, esplizitu-ki, zerga-ordaintzaileen dirua botatzea zela. Zerga horien iturria hirietan kontzentratzen bada ere, hiritar horien bizia lurralde osoan gertatzen denaren menpe dago, urrun dagoen basoaren menpe ere. Esan beharrik ez, baso horien ondoan bizi direnek ere, landa eremuko biztanleek, zergak ordaintzen dituzte.

Eztabaida nahasi horretan erraza da fokua galtzea. Izan ere, eztabaida nahasi horren helburua da herriak fokua galtzea, aztoratzea, herriak suteen suntsipena saihesteko egin behar duena egin ez dezan. Muturreko oportunistentzat, boterea eskuratzeko aukera berri bat besterik ez da eta horretarako, dakiguna zalantzan jarri behar dute, gezurrak ezartzeko haren ordez. Beharbada ez zaizu zuri gertatzen, baina begira agian ondokoari. •



Testuinguru horretan, mugako kontrolei eusteak ez zuen laguntzen Europar Batasuna espazio bakar gisa irudikatzen. Gainera, barne mugak mantentzeak ikuspegi merkantilistegia ematen zion batasun prozesuari, non herritarrak kapitalaren premien eranskin soilak ziren. Hori izan zen barne mugak ezabatzen hasteko abiapuntua.

SCHENGENGO ITUNA

1985eko ostiral hartan, Alemaniako, Frantziar Estatuko, Herbehereetako, Belgikako eta Luxenburgoko lehen ministroek Schengengo Ituna sinatu zuten Princesse Marie-Astrid itsasontzian, Rhin ibaiaren adarretako batean, Mosela ibaian, hitzarmenari izena eman dion Luxenburgoko herria parean zegoela. Dokumentuak zioen barne mugetako kontrolak pixkanaka desagertuko zirela eta herrialde sinatzaileetako herritar guztientzako zirkulazio askeko eremu bat eratuko zela. Hitzarmena urrats garrantzitsua zen Europako Ekonomia Erkidegoa irudikatzeko, merkatu erraldoi bat baino zerbait gehiago balitz bezala. Izan ere, oso esanguratsua da gaur egun Europako herritarrek pentsatzea pertsonen zirkulazio askea dela Europar Batasunaren lorpen nabarienetako bat.

Bost urte geroago, 1990ean, Schengengo Hitzarmenak hasierako ituna osatu zuen barruko kontrolak kentzeko neurri eta bermeekin. Geroago, 1992ko Maastrichteko Itunak europar herritartasunaren nozioa sartu zuen, eta orduz geroztik, edozein herrialdetako herritar guztiak automatikoki Europar Batasuneko herritar izatera igaro ziren, eta horrek Europar Batasuneko edozein herrialdetan askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko eskubidea

Ekainaren 14an 40 urte bete ziren Schengengo Ituna sinatu zenetik. Egun hartan bost herrialde sinatzaileek beraien arteko barne mugetako kontrolak ezabatzea erabaki zuten. Pertsonen zirkulazio askea jasota zegoen Europako Ekonomia Erkidegoaren 1957ko Itunean (Erromako Ituna), baina langileen zirkulazio askeari eta EEEn barruan kokatzeko askatasunari buruzkoa zen. Ez zen aipatzen estatuko mugetan kontrolak kenduko zirenik.

Nolabait ere, merkatu baka-rraren ideiak eskatzen du langileak EEEn beste edozein herrialdetan zirkulatu eta bizi ahal izatea. Ekonomia kapitalistaren funtzionamenduak produktuak eta zerbitzuak askatasunez mugitu ahal izatea eskatzen du, baina baita produkzioan esku hartzen duen guztia askatasunez zirkulatu ahal izatea ere: ekoizpen faktoreak deiturikoak, hau da, kapi-

SCHENGEN ITZALI DA

Schengengo Ituna sinatu eta 40 urtera, mugak sendotzen ari dira, desagertu ordez, mehatxuen aitzakiapean

 **MIGRAZIOA** / Isidro ESNAOLA

Hitzarmena urrats garrantzitsua izan zen Europako Ekonomia Erkidegoa irudikatzeko, merkatu erraldoi bat baino zerbait gehiago balitz bezala. Izan ere, oso esanguratsua da gaur egun Europako herritarrek pentsatzea pertsonen zirkulazio askea dela Europar Batasunaren lorpen nabarienetako bat.

tala, langileak eta lurra. Ekoizpen prozesuan esku hartzen duen oro merkantzia gisa tratatu behar da, eta, beraz, mugimenduaren oztopoak minimo-ra murriztu behar dira. Jakina, lurrak, edo, oro har, naturak, ezin du zirkulatu. Kasu horretan, ekonomia kapitalistaren funtzionamenduak eskatzen

du gainerako herrialdeetako kapitalei lurrerako sarbide askea ahalbidetzea; ez da lurra mugitu behar, nahikoa da kapitalari inbertsioak egin ahal izateko askatasuna ematea. Merkantziak, kapitala eta langileak askatasunez mugitu zitezkeen lortzea funtsezkoa zen merkatu bakarra eraikitzeko.

Schengen eremuko bidaiarientzako bidea adierazten duen kartela, Bukaresteko aireportuan, Errumaniako hiriburuan, Schengen eremuan 2025eko urtarrilean sartu zen azken herrialdeetako batean. Cristian CRISTEL | EUROPA PRESS

Aipatu behar da Europar Batasuna osatzen duten 25 herrialdeak daudela; guztiak, Irlanda eta Zipre izan ezik. Bulgaria eta Errumania dira integratu diren azken herrialdeak

Bestalde, lau herrialde Schengen eremuko kide dira, Europar Batasuneko kide izan gabe: Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza, hain zuzen ere

ekarri zuen. 2007ko abenduaren 13an sinatu eta 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen Lisboako Itunak eskubide hori berretsi zuen.

ESPAZIO HARIKORRA

Europar Batasunarekin lotutako ia gai guztietan gertatzen den bezala, Schengen eremuak xedapen berezi ugari ditu. Gaur egun 29 herrialde biltzen ditu. Lehenik, aipatu behar da Europar Batasuna osatzen duten 25 herrialdeak daudela; guztiak, Irlanda eta Zipre izan ezik. Integratu diren azken herrialdeak Bulgaria eta Errumania dira (aurtengo urtarrilean). Zipreri dagokionez, ebaluazio prozesuan dago gaur egun, Schengen eremuan sartzeko prest dagoen zehazteko.

Irlanda ez da Schengengo kide, baina hitzarmenaren xedapen batzuk aplikatzea erabaki dezake. Britainia Handiarekin zirkulazio eremu komuna du Irlandak, eta Schengen sinatzeari uko egitearen jatorrian dago hori. Sinatuz gero, Irlanda eta Britainia Handiaren arteko bidaiariei irteera eta sarrera kontrolak ezarri beharko litzaizkieke. Gai bereziki sentikorra da Ipar Irlandako mugan, oztopo fisikoa ezartzea suposatzen duelako.

Britainia Handia Europar Batasuneko kide zenean, uko egin zion Schengengo Ituna sina-

tzeari. Erabili zuen argudio nagusia izan zen uharte bateko nazio batentzat mugako kontrolak immigrazio irregularra eragozteko modu hobea eta ez hain intrusiboa zirela. Britainiarren ustez, «lehorreko muga zabal eta iragazkorrak» dituzten herrialdeentzat egokiak dira beste neurri batzuk, hala nola nortasun kredentzialak,

Polizia agente bat ibilgailuak ikuskatzen ari da A64an, Treverisetik gertu, Alemaniako Gobernuak kontrolak berrezarri ondoren Alemaniako estatu-muga guztietan 2024ko irailean.
Harald TITTEL | DPA-EUROPA PRESS

egoitza baimenak eta polizia erregistroak.

Berezitasunekin jarraituz, Danimarka, Schengengo kide izanik, justiziaren eta barne gaien eremuko edozein neurri berritatik kanpo gera daiteke (Schengeni buruzkoak barne), nahiz eta bisen politika komunez neurri jakin batzuek lotzen duten. Danimarkari eragiten dion beste xedapen berezietako bat da Faroe uhartei eta Groenlandiari buruzkoa, biak Danimarkakoak izanik, ez direlako EBkoak, ezta Schengen eremukoak ere.

Bestalde, lau herrialde, Europar Batasuneko kide izan gabe, Schengen eremuko kide dira: Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitza. Europako lau mikro-estaturik –Monako, San Marino, Andorra eta Vatikanoko

Hiria– Schengen eremua osatzen dute, Schengengo beste herrialde batzuekin mugak irekita edo erdi irekita mantentzen dituztelako. De facto kide bihurtu dira.

ATZERA-BUELTA

Schengen eremua bultzatu zuten asmo onak desitxuratu egin dira azken hamarkadan. Inflexio-puntua izan zen, 2015ean, Ekialde Ertainetik, Asiatik eta Afrikatik zetozen milaka errefuxiatu Greziako kostaldera irisi izana, eta horrek eragin zuen errefuxiatuen krisia. Une hartan, herrialde batzuek segurtasun arrazoiak argudiatu zituzten mugako kontrolak aldi baterako berriz ezartzeko. Ondoren, 2020an, pandemiak beste argudio bat gehitu zion muga itxierari:





covid delakoaren hedapena saihestea.

Benetako edo irudikatutako krisiei erantzuteko kontrolak aldi baterako ezartzea eta, batez ere, migrazioaren aurkako gurutzada gero eta handiagoa salbuespena beharko lukeena ohiko bihurtzen ari dira. Migrazioaren inguruko barne presio horren ondorioz, gobernu askok amore eman dute eta mu-

gak ixten dituzte. Horrela, salbuespena izan beharko lukeen egoera bat normalizatzen ari da, eta horrek higitu egiten du Europar Batasunaren itunetan jasotako zirkulazio askearen printzipioa.

Une honetan, Alemaniak, Poloniak, Esloveniak, Italiak, Austriak, Herbehereek, Danimarkak, Norvegiak, Suediak eta Frantziar Estatuak muga ba-

Mugak Zabalduz karabanak mugetan hil direnei omenaldia egin zien Irunen pasa den uztailaren 12an.
Jon URBE | FOKU

Migrazioaren inguruko barne presio horren ondorioz, gobernu askok amore eman dute eta mugak ixten dituzte. Salbuespen izan beharko lukeen egoera bat normalizatzen ari da

Salbuespenen aplikazioan proportzionaltasunik ez dagoen arren, Europako Batzordeak ez dio inolako arau-hauste espedienterik ireki inongo herrialderi

tzuk edo guztiak aldi baterako ixteko eskatu dute. Hamar herrialde horiek Schengen eremu osoaren heren bat baino gehiago ordezkatzeko dute, eta horien artean Europako herrialde handienetako batzuk daude. Horrek barne mugak kentzeko akordioa paper erre bihurtu du. Ituna bertan behera uzteko alegatutako arriskuak migrazioa eta pertsonen trafikoa, terrorismoa eta krimen antolatua dira; Baita, Danimarkaren eta Norvegiaren kasuan, Errusiako zerbitzu sekretuen sabotaje ekin-tzen arriskua ere.

Salbuespenen aplikazioan proportzionaltasunik ez dagoen arren, eta herrialdeak beren legezko betebeharrak betetzen ari ez diren arren, Europako Batzordeak ez dio inolako arau-hauste espedien-

terik ireki inongo herrialderi, eta horrek, bestalde, Europaren eraikuntzan garrantzitsuak diren gaiak eta apaintzeko besterik ez direnak argi utzi ditu.

Schengenen urteurrena zela eta, EBko Kontseiluak adierazpen bat onartu zuen, kanpoko mugen kudeaketa «sendo» baten eta barne segurtasunaren «maila handi» baten aldeko apustua jasotzen zuena. Eta barne mugetan kontrolak berrezartzeak azken neurria izaten jarraitzen zuela zioten arren, praktikan ohiko bihurtu da. Konpromisoen artean nabarmentzekoa da, halaber, sartzeko eskubiderik ez dutenei mugak baimenik gabe gurutza-tzea eragoztearen alde egin duela Batzordeak, bai eta gertatzeko eskubiderik ez dutenei itzultzearen alde ere. Erredakzio horrek kontzienteki eskubide bat ezkututzen du –asiloko eskubidea– eta eskubidez mozorrotzen du benetan administrazio izapidea dena –muga zeharkatzea–. Erretorikak argi erakusten du zeintzuk diren lehentasunak. Nolanahi ere, al-daketa erretoriko horren arabera, kanpo dimentsioa barne alderdiak baino askoz ere garrantzitsuagoa da: Europa gotorlekuak erabateko lehentasuna du herritarren Europaren aldean.

Josep Borrellak aipatzen zuen Europako «lorategia» gero eta zatituago dago, eta Europako liderrek interes handiagoa dute jendea sar ez dadin Europan, bertan bizi den jendea askatasunez mugi dadin baimentzean baino. Schengengo Itunaren bilakaera adierazle ona da, EBk eskubide eremu bat sortzeko duen jatorrizko helburutik urrun baitago, eta gero eta hur-bilago baitago herritarren polizia eta kontrol eremu bihurtze tik.



Omar ASHTAWY | EUROPA PRESS



IKUSMIRA

MARIAM, MOHAMMAD, HUSSAM... JAVIER GUILLEN

«Salaketa aurkeztuko dugu, ezin dugu gertatutakoa baimendu. Bortizkeriaz aldarrikatzen bada, kausa justua izateari uzten dio. Ekin-tza bortitza izan da. Pertsona batzuek lasterketa boikotatu nahi izan dute Israeli bidea galaraziz. Ez da kalterik izan, baina izan zite-keen». Hala mintzatu zen, asteazkenean, Espainiako Vueltako zuzendari Javier Guillen Figueresen, bosgarren etapan, taldekako erloju-pekoan, Israel-Premier Tech taldea pasatzen ari zela Palestinako banderak eskutan ekintzaile batzuk errepidera atera ostean. Protesta «biolentoa» izan zela esan zuen, genozidioari aipamenik egin gabe. Guillenek adierazpen horiek egin baino bi egun lehenago, astele-henean, Israelek, eraso hirukoitz batean, 20 pertsona hil zituen Nasser ospitalean. Tartean, bertatik lanean ari ziren bost kazetari zeu-den: Mariam Abu Daaqa, Mohammad Salama, Moaz Abu Taha, Hussam al-Masri eta Ahmed Abu Aziz. Nazioarteko zuzenbidearen arabe-ra, ospitaleak babes berezia duten guneak dira. Egun berean, beste leku batean, beste kazetari bat hil zuten. Hilabete hasieratik, Israelek 1.500 etxe suntsitu ditu Zeitoun auzoan, Gaza Hirian. Gosetearen ondorioz, jada 317 pertsona hil dira; horietatik 121, haurrak. Ez dira zifra hutsak. Izen-abizenak, aurpegia, ametsak... zituzten pertsonak baizik. Ainara LERTXUNDI



Taldeak

Elkartzen eta banatzen gaituzten talde edo jende-multzoetan antolatuz bizi gara. Talde batzuetan elkarlanerako gaude; ekoizpen eraginkor batean pentsatzea besterik ez dago, besteak behar ditugu, lagun izan edo ez. “Elkarkidetasuna” esaten diogu. Baina aurkako eragilea ere badago taldegintzan, identitarioki harreman-tzen garenean gu ez garen “besteak” multzokatzen ditugu, gehienetan arerio gisa kontsideratuz eta tartean partida garrantzitsu bat jokatzeko ariko balitz bezala parte hartzen dugu. Errepasoa egiten badugu, ohartuko gara zenbatetan sortzen ditugun dikotomia-taldeak subjektibotasunak jota; zeren eta, agian, ez gara beste talde horretakoekiko hain desberdin, edo berdintasun elementu asko egon daitezke. Adingabeko eskola patio baten moduko jarrerak, helduen patioan.

Ez dakit gainerako fakultateetan nola gertatzen den, baina euskal arkitekturaren unibertsitate publiko eta pribatuaren artean talde identitarioak sortzen dira. Donostiakoa, publikoa, eta Iruñekoak, Opus-ek eramaten duen unibertsitatea. Non ikasi duzun, horrek talde batean jartzen zaitu *de facto*, eta eremu askotan nahasketa ez da gertatzen edo gertatzea saihestu egiten da, integrazioa neurtuz beti eta zuhurtzia handiz jokatzeko. Denok dakigun arren Iruñekoan ikasi izanagatik ez dagoela kutsu erlijioso gaineraturik, beste motibazio batzuek eramaten dutelako bertan ikastera. Baina bien arteko pikea historikoa da, edo irrazionala, urte luzez praktikaturikoa, eta arkitektoak taldekatzen dira ikasketak burutu dituzten lekuaren arabera, informazio datu esanguratsua izango balitz bezala. Begiradaren

arabera norabide batean edo bestean iritzia baldintzatzen eramaten gaitu, alegia.

Batean edo bestean ikastea ez da gauza bera, noski. Baina taldekatzeak eramaten du «nor den hobe» lehiara. Nork eramaten dituen sari gehien, zenbat arkitekto iristen diren “urruti” hobetsitako ibilbide profesionalaren bidean. Fakultatearen curriculumari begira, desberdintasunak txikiak dira, eta gainontzeko ikasketetan bezala, desberdintasunak irakasleriak ezartzen ditu, eta denetarik dago. Hemendik aurrera irakurriko duzuna komatxo artean jaso ezazu, idazten duena publikoan ikasitakoa dela jakin behar duzulako. Eskola pribatuaren arkitektura eta arkitektoaren irudi eta ogibide klasikoak irakasten dela ematen du, eraikitzen dituz-

ten eraikinetan antzematen dena. Hormigoi ikusiaren erabilera oso zabalduta dago Iruñean ikasitakoen artean, eraikuntza elementuen erabilera erritmiko eta homogenea, dekorazioaren desagerpena, testuinguruarekiko keinu sotila, neotradizioaren arrastorik gabekia, forma geometriko ortogonalak. Arkitektura modernoak ezartzen dituen ezaugarriekiko atxikimendu zorrotzagoa. Estilo edo egiteko modu bat ezarriago dago, Donostian ikasitako arkitektoen artean ez dagoena, eklektikoa goa da.

Agian une honetan ikasle direnei galdetu beharko genieke ea zer pentsatzen duten, ea non dauden arrakalak, halakorik badago, eta agian oinordetzan hartutako sailkapen sistematikoa doituko litzateke pixkatxo bat. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOiena BUSTURIA

arkitektura / psikologia / teknologia

3 BEGIRADA:

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Jon eta Anjel egungo piratekin

Donostiako Piraten Flamenkan altxor txiki bat topatu dut abuztuan. Horrelakoak agertzen dira tarteka euskal jaietan, nahiz eta, festaren zurrumbiloan, oihartzun handirik ez izan. Gazteek pentsiodunen esku utzi zuten suziria aurtan, eta entzun beharrekoa iruditu zitzaidan batzuek zein besteek esandakoa.

Piraten aldetik orriotan Inge Ugartek adierazi zuenez, aspaldi zuten pentsiodunen borroka omentzeko gogoia, «azken finean denok iritsiko garelako haiek dauden puntu horretara eta balioan jarri behar da egiten duten lana, gure etorkizunaren alde». Bestalde, Flamenkako oholtzatik, mugimenduko ordezkari batek honako hau helarazi zien pirata gazteei: «Justizia sozialaren aldeko borroka ematen digu indarra. Botereek guk indibidualismotik jo dezagun nahi dute, ahal duena salba dadin eta ondokoari erreparatu gabe. Baina asko gara axolagabekeria jauzi nahi ez dugunok, gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoaren aldeko borroka zentzua ematen dielako gure bizitzei».

Pozez eta itxaropenez hartze-koa iruditu zitzaidan hitz trukaketa hori, normalean bizitza-aldiaren bi ertzetan diren belaunaldi horiek elkarri bizkarra emanda ibiltzen direlako. Gazteek zaharren “paternalismo”rako joera gorroto dute, eta nagusiek, egungo neska-mutikoen “axolagabekeria”. Neurri batean Mendebaldeko zibilizazioen arazoa da, munduko beste zenbait kulturatan adinekoek pilatutako jakinduriari balio garrantzitsua aitortzen zaio eta. Baina, aldi berean, botereguneak han eta hemen adinekoen esku egon ohi dira, gazteen arazoei jaramon handirik (edo batere ez) eskaini gabe.

Elkar ulertzeko ezintasun horretan, Euskal Herriak aldagai erantsia du: gatazka armatuaren amaierak bi aro guztiz ezberdin sortu ditu, arrakala handiagotuz. Sumatzen dut egungo gazteei kosta egiten zaiela aurreko zikloak eragiten zuen guztiaz jabetzea; konpromiso mailaz

eta herri nortasunaz, esaterako. Eta, era berean, uste dut nagusiek ez dutela ondo neurtzen zein testuinguru nahasian jardun behar duten egungo gazteek, teknologiak ekarritako kaosa bereziki: ultraeskuinaren gorakada zein despolitizazioa bertan direla, kontzientziari eustea aurreko aroan baino dezente zailagoa baita.

Gauzak horrela, arretaz jarraitzen dut Txiki eta Otaegiren fusilamenduen 50. urteurrenak egungo euskal gazteengan duen inpaktua. Gerta liteke oharkabea pasatzea, nagusien beste kontu askorekin gertatzen den bezala, baina kontrakoa ere bai: mitifikazioa birsortzea, mitifikazio hutsa agian, eragin gabekoa.

Mitoak baditu edozein herrik, jakina, baina horiekin batera bizitza osoan zehar borroka egiten duten pertsona

Epikoegia ez bada ere, nik Flamenkako oholtzan irudikatzen ditut biak, urteetan hartutako konpromisoak beren bizitzak edukiz bete dituelako konforme, pozik

arruntek eramaten dute aurrera. Francok bizia errotik kendu izan ez balie, zein bide egingo zuten Txikik eta Otaegik? Urte asko pasatuko zituzten kartzelan agian, edo beharbada ez. Militante ezagunak izango ziren, benetako liderrak, edo xumeak eta ezezagunak akaso, Jon eta Anjel, ez besterik. Bost hamarkada hauetako erakunde, alderdi eta siglen dantzari, auskalo non joango ziren kokatzen beren burua, norekin lerrokatuko ziren eta norekin haserretuko...

2025 honetan, 71 urte izango zituen Txikik, eta 83, Otaegik. Epikoegia ez bada ere, nik Flamenkako oholtzan irudikatzen ditut, pentsioen aldeko aldarrikapenean agian, gazte asko inguruan. Eta batez ere, urteetan hartutako konpromisoak beren bizitzak edukiz bete dituelako, berearekin konforme eta pozik. •

GERMAN INTXAUSTI

Kamera eta txistua aldean, Tolosaldea iruditan gorde zuen argazkilari alegiarra

📁 JENDARTEA / Amagoia MUJIKATELLERIA

German Intxausti Arregi 1926ko abuztuaren 21ean jaio zen Legorretan, baina bizitzaren parte handiena Alegian eman zuen. Eta bertan hil zen, 2004. urteko otsailaren 12an.

Auñamendi Eusko Entziklopedian jasota dagoenez, «argazkilaria ogibidez, Albiztur eta Amezketa herrietan igande arratsaldeko dantzaldiak mantentzearen arduraduna izan zen. Intxausti zazpi urterekin hasi zen musikan, aitararen eskutik. Txistulari ikasketak egin zituen Alegian eta txistu eskolak eman zituen Albizturren. Bere txistulari lana Alegiatik abiatzen zen Tolosaldea eta Goierri zehar zabaltzeko. Hainbat pieza eta doinu konposatu zituen bere instrumenturako eta Euskal Herriko Txistulari Elkarteko bazkide izan zen 1955ean bigarren garaia hasi zenetik. 77 urte zituela hil zen, eta Alegiako, Albizturko eta Amezketa udalek eskainitako omenaldiak jaso zituen, besteak beste».

Argazkilaria ogibidez. Baina apenas dagoen jasota Intxaustik argazkigintzan egindako bidea. Bere seme Rikardoren laguntzarekin saiatu da GAUR8 ibilbide hori marrazten, kasik berak utzita bezala dauden bere dendaostean, laborategian eta artxiboan bertan. German Intxaustiri aitak piztu zion argazkigintzarako harra, baita txisturako zaletasuna ere.

«Gure aitona Ricardo Intchaustirekin hasi zen historia. Tolosako eskolapioetan ikasi zuen eta, ikasketak zituenez, Alegian idazkari hasi zen lanean. Gerra garaian Legorreta-

German Intxausti Alegiako argazkilaria zen. Hori zuen ofizio. Txistularia ere bazen, eta zaletasun horren mar txan eskualdeko herriak ezagunak zituen. Txistua ez ezik, kamera ere aldean eramaten zuen beti. Artean ezezaguna den artxiboa osatu zuen hamarkadetan. 2026an ehun urte beteko dira jaio zela. Urte seinalatua.

ra alde egin zuen, emaztea bertakoa zuen. Seme-alabak han jaio ziren. Legorretan ere idazkaria izan zen hilabete batzuetan, baina handik ere alde egin behar izan zuen. Bizimodu aurrera ateratzeko, denetarik egin zuen aitona. Bere aita hil zenean, Alegiara bueltatu zen eta bertan jarri zuen

denda eta taberna. Aitona artista bat zen, denetarik egiten zuen. Argazkiak ere egiten zituen. Eta gure aitak aitona gendik jaso zuen jakin-mina, artista sena, gauza desberdinak egiteko gustua... baina gure aita gehiago zentratu zen argazkilaritzan», azaldu du Rikardo Intxaustik. Rikardok beti eza-

gutu du etxean argazki laborategia, bai herrigunean aitona amonek zeukaten etxean, bai geroztik gurasoekin partekatu duen etxean. «1983ko uholdeen ondoren, gaurko etxera lekualdatu ginen. Bertan jarri zuen argazki-denda aitak».

Nortasun agirirako argazkiak, baserrietan familia ugarien argazkiak, jaioberrienak, ezkontzak, jaunartzeak, Gabonetan haurrak baserriar jantzita... herriko argazkilaria ohiko jarduna. Baina, txistularia ere bazen eta eskualdean eta inguruko herrietan askotan aritu zen txistua jotzen. Beti aldean eramaten zuen argazki kamera, eta ibilera horietan ere irudi asko jaso zituen. Hartara, bere artxiboak espero gabeko perlak ere badi-

Beheko irudian, Rikardo Intxausti, bere aita Germanen artxiboan. Atzeko aldean, kartoizko kutxetan, irudiak daude urteko antolatuta. Jon URBE | FOKU



tu, garai bateko herriak eta herriarren bizimoduak jasotzen asmatu baitzuen Intxaustik.

«Beti eramaten zuen kamera, toki guztietara. Dianak, alboradak baserriz baserri... txistua jotzera joan eta baserriko etxeoandrea ateratzen bazen, aitari argazkiak egitea gustatzen zitzaion. Igual esango zion etxeoandreak 'piura honekin atera behar al didazu?'. Baina berak hori nahi zuen, eguneroko irudi horiek jaso. Eta akaso ondorengo urtean berriz joan eta aurreko urteko argazkia oparituko zion emakume horri», kontatu du Ricardo Intxaustik. Hortik igarri daiteke German Intxaustiren artxiboaren nolakotasuna eta balioa. Pentsa, euskal jantziak ikertzen ari direnek ere baliatu dituzte artxiboko irudi horietako batzuk. «Aitak bazeukan argazkiaren bitartez jendearekin konektatzeko sen berezi bat».

Altzo, Amezketa, Albiztur, Orendain, Arama, Alzaga, Baliarrain, Oresa... Alegiako eta inguruko herrietako artxibo oparoa, 90 urteko argazki artxiboa, aitonarena eta aitarena. Hori ere badu berezi artxiboak, bi egileren lanak biltzen baititu «1913koak dira aitonaren lehen negatiboak, kristalean. 1940ra arte gehienak kristalezko negatiboak dira, nire aitonaren garaikoak. Aita 1940 inguruan hasi zen, hamalau urte zituela. Eta orduan hasi zen zeluloidea erabiltzen. Aitaren azken argazkiak 2003. urtekoak dira». 1913-2003 urte bitarteko milaka argazki, eskualde baten argazki kronika biltegi batean jasoa.

Argazkilaritzaren inguruko liburu asko era badaude pila-tuta dendaoste horretan. «Gure aita autodidakta zen. Argazkilaritza bere ofizioa zen eta




Ezkerreko aldean, German Intxausti. Alboan, bere aita Ricardo Inchausti. Aitak transmititu zizkion txisturako zaletasuna eta argazkilaritzaren harra. INTXAUSTI SENDIAREN FUNTSA

interes handia sortzen zion arlo horrek».

German Intxaustiren artxiboak badu ezaugarri oso nabarmen bat: argazki bakoitzaren fitxa zehatza. «Aita oso metodikoa eta ordenatua zen. Bere lanean oso zintzoa. Dena txukun eduki behar zuen. Gaur egun begiratuta, konturaten naiz aitak bazuela aurrera begirako ikuspegi bat. Bazekien artxiboa ondo anto-

Ricardo eta German Intxausti aita-semeen argazkiak dituzte jasoak etxean. 1913-2003 urte bitarteko milaka argazki, eskualde baten argazki kronika biltegi batean jasoa

Argazki bakoitzaren informazio zehatza jasota utzi zuen Germanek. Noiz egina, non, zein kamerarekin, zenbat argazki erabili zituen, zein baserri, familia, ospakizun...



latuta utziz gero, gerora balioa izango zuela. Ikuspegi hori izan zuen aitak. Bere artxiboak etorkizunean balioa izatekotan, argazki bakoitza ondo dokumentatuta edukitzea garrantzitsua zela pentsatu zuela uste dut».

Argazki bakoitzaren informazio zehatza jasota utzi zuen German Intxaustik. Noiz egina zegoen, non, zein kamerarekin, zenbat argazki erabili zituen, zein baserri, familia, ospakizun... argazkien oinak errepasatuta istorioak topa daitezke eta historia osatu. Balio antropologiko biziko artxiboa da horregatik.

«EZ NUEN LARDASKAN IBILI NAHI»

Bere seme Rikardoren kezka da hor bilduta dagoena nola txukundu, antolatu eta jarri herriaren eskura. «Badira 21

urte aita hil zela. Ni saiatu naiz bere gauzak ondo gordetzen eta ahalik eta gutxien ukitzen. Ez nuen lardaskan ibili nahi. Askotan etorri zaizkit eskaerak, eta ezezkoak eman ditut, iruditzen zitzaidalako aitaren lana arriskuan jartzen nuela. Egun batean Mikel Prieto historialaria etorri zitzaidan eskaera batekin. Baliarraini buruzko lan bat egiten ari zen eta gure etxean argazkiak zeudela bazekien».

Hasieran ezezkoa eman omen zion, baina harekin hizketan konfiantza transmititu zion eta artxiboan arakatzeko baimena eman zion Prietori. «Ez zuen topatu nahi zuena. Baliarraingo jaietako argazkirik apenas dagoen, Albizturko jaiekin batera direlako. Albizturko askoz argazki gehiago topatu zituen». Baliarraingoak



aitonak eginak dira. «Dirudie-
nez, aitona Baliarrainera joa-
ten zen txistua jotzera eta, ai-
ta, Albizturrera. Banatu egiten
zuten egitekoa. Horregatik ai-
tak Albizturko argazki askoz
gehiago atera zituen».

Albizturko herriarekin ha-
rreman ona daukate intxausti-
tarrek. «Albiztur asko maite
dugun herria da eta gu ere
maitatuak sentitzen gara Al-
bizturren». Hartara, herriko
argazki batzuk digitalizatu eta
erakusketa bat antolatu dute
herrian oraintsu, iragan berri
diren jaietan. «Oso ondo atera
da. Ikaragarri gustatu zait nola
egin duten. Herrikideen ar-
tean sekulako saltsa sortu du-
te, argazki zaharretan daude-
nak identifikatzeko jolasa
proposatu baitute. Guretzat
baliagarria izan da proba beza-
la, 2026. urteari begira». Izan
ere, 2026an 100 urte beteko di-

ra German Intxausti jaio zela
eta urte berezia izango da.

«Mikel Prieto historialariak
artxiboa ikusi zuenean, be-
rehala konturatu zen balio
handiko ondarea zegoela ber-
tan. Hainbat erakunderekin
saiatu gara, eta azkenean Ale-
giako Udalera iritsi da artxibo
honen berri. Datorren urtean
100 urte beteko dira aita jaio
zela eta omenaldia prestatzen
ari gara Udalarekin batera. Ai-
taren lanari balioa emateko
modu ederra izango da», au-
rreratu du Rikardo Intxaustik.

2026a Intxausti Urtea izan-
go da Alegian eta hainbat eki-
men antolatuko dira German
Intxausti argazkilariaren jiran.
Parean, familiak artxibo osoa
dohaintzan emango dio Gi-
puzkoako Foru Aldundiari.
Hartara, pixkanaka artxibo
hori digitalizatzen hasiko dira.
«Hemen inguruan badira ar-

Lerro hauen gainean, German
Intxausti bera zutik, motoari
eusten. Eskuinaldean,
Intxaustiren argazki batzuk eta
argazkien informazioa jasotzen
duten fitxak.
INTXAUSTI SENDIAREN FUNTSA
Jon URBE | FOKU

**«Datorren urtean 100 urte beteko dira aita jaio
zela eta omenaldia prestatzen ari gara
Udalarekin batera. Aitaren lanari balioa
emateko modu ederra izango da»**

**Familiak Gipuzkoako Foru Aldundiari
dohaintzan emango dio artxiboa. Aldundiak
konpromisoa hartu du artxiboa digitalizatu eta
interesa duten udalen esku jartzeko**

txibo horretan interes handia
duten herriak. Aldundiari
dohaintza hori egitean, Aldun-
diak berak konpromisoa hartu
du irudi horiek digitalizatu eta
udalen eskura jartzeko. Modu
horretan interesa daukaten
herriek artxibo hau baliatu
ahal izango dute. Horregatik
erabaki dugu horrela egitea»,
azaldu du Rikardok.


Azken 21 urteotan ezezko as-
ko eman dituzte intxaustita-

rrek. Herri askotatik etorri
zaizkie artxiboaz galdezka eta
ezezkoa jaso dute bueltan.
«Niri erreparo handia ematen
zidan artxiboan miatzen has-
teak. Ezezkoa ematea ez da sa-
murra izan, baina garbi nuen
profesionalek egitea nahi nue-
la. Orain ikusi dut momentu
ona izan daitekeela eta horre-
gatik erabaki dugu Gipuzkoa-
ko Foru Aldundiari dohain-
tzan ematea etxean dugun
artxibo hori».

Orain da momentua, he-
mendik aurrera berandu izan
daitekeelako. «Albizturko era-
kusketan garbi ikusi dut.
Oraindik bada herrian jendea
argazkietan daudenak identi-
fikatzeko gai dena. Urte ba-
tzuk pasatuta, ez da hain erra-
za izango. Oraindik herri
memorian daude argazkietako
tokiak, pertsonaiak, ohiturak,
momentuak... Hemendik ha-



Goian, Ezkioko peleginajeen
prestaketa lanak. Lerro hauen
eskuinaldean, Rikardo Intxausti
aitaren kamera batekin.
INTXAUSTI SENDIAREN FUNTSA
Jon URBE | FOKU



mar urtera, akaso ez dira egongo herri memorian».

ARTXIBOAREN BALIOA

Esan bezala, Alegiako intxaustitarren etxean, argazki-denda zena, dendaostea, artxiboa, laborategia... kasik German Intxaustik utzi bezalaxe daude. Argakigintzan jantziak diren adituak pasatu dira dendaoste horretatik azken hilabeteotan. «Denek esan didate argazki artxibo handiagoak daudela Gipuzkoan. Baina artxibo hone-tako irudiak eskualde honetakoak dira, Gipuzkoa barrualdekoak, eta hori da berezitasunetako bat. Beste artxi-boetan dauden argazki gehienak Donostia eta inguru-koak dira. Beste berezitasuna da bi belaunaldiren artxiboa dagoela, aitonarena eta aitare-na. Guztira, 90 urte daude ja-soak. Eta adituak oso harrituta

geratzen dira ikusten dute-nean aita nola utzi duen de-na dokumentatuta. Oso zehatz jasota dago dena. Eta aitonak eta aita erabilitako kamerak ere hemen daude, guztira ha-mabost bat kamera. 90 urte horietan erabili dituzten ka-mera ia denak daude hemen, eta ia denak funtzionatzeko moduan».

Laborategian errebelatzeko makineria, likidoak, argazki papera bere estutxe originale-tan, positibatzeko metalezko kubetak... badira altxorak. «Gu ez ginen oso jakitun hor zegoen guztiaz. Sumatzen nuen artxibo garrantzitsua izan zitekeela, baina espero baino ezusteko gehiago ari di-ra agertzen. Eta agertuko dira oraindik, seguru».

German Intxausti nola iru-dikatu behar dugun galdetuta, semeak garbi dauka. «Aita ofi-

ziaz argazkilaria zen eta afi-zioz –zaletasun izugarria zuen, gainera–, txistularia. Isidro Ansorena handiarekin ikasi zuen eta txistulari ona zen. Akordatzan naiz Ansorena hil zenean aitarekin joan nintzela hiletara. Buruan daukat. Eta etxean agertu dira zenbait es-kutitz aita Isidro Ansorenari Afrikatik idatziak, bertan sol-dadu zegoela. Horietan konta-tzen dio jakin duela Hernanin omenaldia egin diotela eta zo-riondu egiten du. Txistuarekin inguruko alarde askotara joa-ten zen; Villabona, Hondarri-bia, Oñati, Eibar, Donostia... kuadrillan joaten zen eta seku-lako egunpasak egiten zituz-ten. Eta beti, kamerarekin. Ar-txiboan egunpasa horietako argazki asko daude». Alardeez gain, jaietan inguruko herrie-tara joaten zen, kaleak eta ba-serriak girotzera. Ibilera horie-

tan ere argazki asko atera zi-tuen.

Orain, kartoizko kutxetan dauden argazki horiek guztiak begiratzen eta digitalizatzen hasten direnean, eskualde ba-


ten 90 urteko irudi kronika osatzea espero da. 2026. urtea, beraz, Intxausti Urtea izango da Alegian. German Intxausti-ren lana lehen lerrora ekarri eta aitortzeko urtea.

{ gertuko
planak }

Bizkaia / Bizkaiko Flyscha

*Duela ehunka
milioi urteko
historia
kontatzen duen
liburua*

Nerea LAUZIRIKA



Formakuntza geologiko bat da flyscha, orrialde multzo baten forma duena eta, liburuek egiten duten antzean, zerbait kontatzen duena. Gehien-gehienoi, flyscha aipatutakoan, Zumaiakoa etorriko zaigu burura, baina, hala ere, Bizkaian ere badago, eta ezezagunagoa den arren, edo agian horregatik, interesgarria da oso. Bertan bisitak egiten dituzte Ekobideak kooperatibako buru diren Imanol Lopez eta Barbara Casas geologoek.

Getxotik Gaztelugatxeraino doa Bizkaiko Flyscha eta horrenbesteko azalera izanda, interes berezia dauka, dibertsitatea baitu bereizgarri nagusietakoa. Barrikan egin dugu hitzordua eta hondartzara jaitsi beharrik gabe ere ikusi daiteke formakuntza geologikoa. Bertan kareharriak eta tupak daudela azaldu du Lopezek, eta adituak zehaztu duenez, nahiz eta beste toki batzuetan ere badauden horrelakoak, Barrikan ikusgarri dagoena desberdina da, tolesturak eta failak ere baitaude: «Hemen ikusi daiteke plaka tektonikoen mugimenduak traba egin duela formakuntzan eta, horregatik, itsaso sakonean zeuden arroka guztiak azalera atera zirela».

Dinosauroen garaikoa da formakuntza, hots, duela 130 milioi urtekoa. Baina, ez dezala inork pentsatu Euskal Herrian inoiz dinosaurorik ibili zenik, geologoak zehaztu duenez, orduan gure herria urpean baitzegoen eta dinosauroak, ordea, lehorrean baino ez ziren bizi. Itsaso azpian egoteak, ordea, oso toki aproposa egin zuen, besteak beste, arrezifeak ager zitezen. Horrela, flysch honek Jurasikoan eta Kretazeoan jazotakoa kontatzen digu, arroka irakurtzen jakinez gero. Irakurmen gaitasuna letretara mugatua dutenek, aldiz, adituengana jotzea dute, Lopezek eta Casasek egin bezala horren gai konplexua era ulergarrian azaldu diezaioten.

«Kontatzen du nola egin zuen Euskal Herriak urpetik azalera plaka tektonikoen mugimenduaren ondorioz», azaldu du Lopezek. Inguru horretan ikus daitezke, era berean, fosilak.

Getxotik Gaztelugatxera doan parke geologikoa ez da osorik gune babestua; ez behintzat, momentuz, izendapen horrek ez dakarrelako babesik berarekin. Baina, badago zatika nolabait babestuta, tarte zabal horretan badaudelako beste izendapen bat duten guneak ere, euskal kostaldearen



zati handi bat hartzen baitu Bizkaiko Flyschak alde batetik bestera.

ZENBAT ETA GERTUAGO, ORDUAN ETA EZEZAGUNAGOA

«Hemen bizi den jendeak ez daki parke geologiko batean dagoenik: errepideetan ez dago horrela izendatuta, ez dago mapetan...», adierazi du Lopezek. Hala ere, haiekin bisitak egiten dituen jendea ingurukoa dela azaldu du, batez ere, bizkaitarra.

Badaude hainbat puntu heltzeko zailagoak direnak edo, behintzat, bertara iristeko tentuz ibili beharra dago, erorikorik ez izateko. Baina, oro har, jarduera irisgarriak egiten saiatzen dira.

Ikasle garaian ezagutu zituzten toki horiek Lopezek zein Casasek eta, orduan bai, zaila zen Barrikako hondartzatik flyschera heltzea. Baina, azaldu dute duela hiruzpalau urte konpondu zituztela eskailerak eta orain askoz ere errazagoa dela jaistea. Edonola ere, arroketatik aurrera egin beharra dago eta, horregatik, olatuak daudenean ez da komeni bertan ibiltzea. Hala ere, saiatzen dira flyscha bertatik bertara erakusten.

Guneak duen interesaren adierazgarri, Lopezek azaldu du Barrika inguruko silexak aurkitu izan dituztela Mediterraneo itsasoaren bueltan eta, aldi berean, hango maskorrak hemen. Horrek erakutsiko luke hango eta hemengo neandertalek hartu-eman zutela eta objektuak trukatzeko zituztela.

Azalpenok dibertigarri egiten saiatzen dira eta mimoz prestatzen dituzte jarduerak parke geologikoan. Pozik dau de egitasmoa abian jarri zutenetik izan duten emaitzarekin: «Jendeari gustatzen zaio, flyscharen bidez gure historia ezagutzen dugu». Jakin badakite, baina, ingurua alde dutela. Casas erabat seguru dago jardueraren arrakastaren merituen erdia behintzat paisaiarena dela, «edo agian gehiago».

Geologoak dira biak ala biak, ezin hobeto dakite zertaz ari diren eta benetan agerikoa da lantoki hartu duten parajea kuttuna dutela. Hala ere, jakitun dira geologia ez dela edonorentzat: «Gu dibulgatzaileak gara eta azalpenak ematean saiatzen gara informazioa aurrean dugun jende motari egokitzen, ez hitz egiten parean zientzialari bat bageneuka bezala».

Ezkerreko irudian,
Imanol Lopez. Orrialde
honetan, flyscha
ikuspuntua
desberdinetatik.
Monika DEL VALLE | FOKU -
EKOBIDEAK

jakinbeharrekoak

Ekobideak
kooperatibaren
jardueraren baten
erreserba egiteko, 666 85
77 61 telefono zenbakira
deitu edo
ekobideak@gmail.com-
era idatzi beharra dago.
...
Ekobideak.com
webgunean ikusgarri
dago jardueren
eskaintza. Hala ere,
inguruan badaude
naturaz gozatzeko
aukera ematen duten
beste agentzia batzuk ere
...
Flyschera nor bere kabuz
gerturatzeko aukerarik
errazena autoan
bidaiatzea bada ere,
hainbat lekutara
heltzeko Bizkaibus
sareko autobusak erabili
daitezke, baita metroa
ere.

Izan ere, ezagutza zabaltzea dute xede nagusi. 2017. urtean osatu zuten Ekobideak kooperatiba eta ondorengo urteko apirilean egin zuten lehen jarduera. Hasiera-hasieratik argi izan dute inguruko jendeari so lan egin nahi zutela, izan dezaten etxetik gertu duten ondarearen berri. «Geure enpresa sortu genuenean ideia bat oso argi geneukan: hain zuzen, gure aktibitateak hemen bizi direnei eramatea, nahiz eta turismora zuzendutako enpresa izan, berez», azaldu du Lopezek.

Lan hori hartu dute haien gain, sinetsita daudelako jendea ez dela guztiz ohartzen paisaia bera ere ondarea dela. «Identifikatzen ditugu eraikinak eta jauregiak ondare material bezala, eta txoriak, bestelako animaliak eta landareak ondare natural bezala, baina, harriak, geologia, ez horrenbeste», azpimarratu du Casasek. Lan mardula dute egiteko, beraz.

Ikastetxeekin ere egiten dituzte bisitak, betiere, egokitu-ta, bai hizkera, bai edukia bera. «Saiatzen gara ingurumen hezkuntza egiten», azaldu du Lopezek. Horretarako, beste toki batzuetan debekatuta izaten dutena egiteko parada ematen diete bisitari gaztetxoenei: «Ematen dizkiegu arrokak, fosilak eta abar ukitzeko eta hori guztia gustatzen zaie».

TURISMO JASANGARRIA

Egunotan dena da turistikoa, eta gero eta gehiago masifikatzen ari dira Euskal Herriko hiriak zein herriak. Bizkaiko Flyschak turistifikazioaren ondorioak pairatu ez ditzan, turismoa era jasangarrian egiten dute Ekobidean kooperatibak.

«Gure taldeetan, gehienez ere, 25 pertsona eramaten ditugu bi gidarirekin eta zaintzen dugu inork ez hartzea edo hondatzea ezer; ez dugu nahi hemen gertatzerik beste toki batzuetan ikusten ditugun masifikazioak», nabarmendu du Lopezek, Gaztelugatxen ematen ari den fenomenoari erreferentzia eginez.

Turismo jasangarria, zientzia dibulgazioa eta dibertimendua uztartzen dituzte antolatzen dituzten jardueretan, adin guztietako bisitarien gozamenerako. Bi orduz, kontuan hartuta jendea aisialdiaz disfrutatzea doala, bisita dibertigarri egiten saiatzen dira, baina hori bai, «zehaztasuna albo batera utzi gabe».



Fernando TREBOL UNZUE
Psikologiako doktorea

Garunaren ideia irrazionalak

Ditugun ideiak ezarriak dira gehienetan, inguruan dugunak eragindakoak: familiak, ohiturak, ohiko zereginak... Txandaka lan egitearen

erritmoak ezarrita, ikus-entzunezkoen irudi faltsuen errepikatze konstante baten ondorioz. NPC –ingelesezko *Non Playable Character*-tik dator– bat bezala jokatzeko dugulako izaten da, ez dugu pentsatzen, gure ideiak gureak diren edo nolabait guk ekoiztuak diren. Entzun dugun hori egiaztatu gabe erabiltzeak eroso sentiarazten gaituelako edo, buklean jarraituz behartzen gaituelako, matrix digital batean egongo bagina bezala. Jokoa parte hartzen ez duen jokalarik gisa, protagonista izan gabe.

Albert Ellis psikoterapeuta kognitiboak jokabide emozionalen terapia arrazionala aztertu zuen. Emozioak ezagutzea ezinbestekoa da garunaren ideiak zaintzeko, gure pentsamenduaren iturburuan dauden gertaerak ulertzeko, onartzeko, baztertzeko, ukatzeko eta abarrerako. A-B-C eredua proposatzen digu. A bizi dugun edozein motatako gertaera litzateke, B guk sortutako pentsamendua litzateke eta C pentsamendu horretatik sortu dugun emozioa. Beraz, gertaera batek ez du emozioa zuzenean sortzen, gu gara, egoera aztertuta, pentsamendu bat sortzen dugunak, eta pentsamendu horretatik sortzen ditugu emozioak. Horien ondorioz, neurriz gain sufritzen dugu eta ez dugu modurik onenean jokatzeko aukera. Ellisek oinarritzko 11 uste irrazional planteatu zituen eta hiru sinesmen irrazional gisa laburtuta eman:

- Norberarekiko ideia: «Gauzak ongi egin behar ditut besteen onarpena lortzeko».

- Gainerako indibiduoekiko ideia: «Besteek modu atsegin, zentzudun eta zuzen batean jokatu behar dute».

- Bizitza edo munduarekiko ideia: «Nik nahi dudana esfortzu handirik egin gabe lortzeko baldintza egoki eta errazak eskaini behar dizkit bizitzak».

Idea arrazionalak guk sortzen ditugu, eta ez bizi izan dugun egoera batek. Horrela dela konturatzeko, hona hemen trikimailu batzuk:

- Pentsamendu zurrunkak: ez dute ñabardurarik onartzen, ezta erreplikarik ere. Horrexegatik daude errealtatetik urrun samar.

- Uste okerrak: ideia irrazionala prozesatzen den unean argitara ateratzen diren pentsamendu inkontzientetatik eratortzen dira. Adibide bat da guk egindako zerbait mundu gutiari gustatu behar zaiola pentsatzea, onarpen-premia ezkutu batengatik.

- Denbora-adberbio absolutistak: «Beti» eta «inoiz ez» dira erabilienak.



Ilustrazioa: Fernando TREBOL UNZUE



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Askotan entzungo dituzun «zientziak dioelako» edo «aditu batek esan due-lako». Sinesmen mailan jarri dira, erlijio bat balira bezala, inork ezagutzen ez duen «jainko» bat, baina denek existitzen dela sinesten dute.

Gizakiak bere kontzientzia izan zue-netik, gizataldean (tribuan) beti nabarmendu da kide baten ikuspegia, eta talde hori, antzina, 50 kide-tik gorakoa zenean, taldea bitan banatzen zen, ez baitzegoen eredu ezarri bati jarraitzea. Batzuetan onartzen zen, baina eguneroko bizitzari aurre egiteko ez zen baliozkoa, denek denek laguntza behar baitzuten, baina denek inplikazioaz.

Gaur egun, gutxi batzuek gehiengo zabalaren kontrola dute, eta haien ekoizpen indarrak (lanaz) eta ahalegi-naz (energiak) baliatzen dira, eta horretan jarraitzeko, gure pentsamenduaren kontrola behar dute. Horregatik, jasotzen dugun heziketa, informazioak, gizarte ereduak eta abarrak menpeko egiten gaituzte, eta horretarako, pentsatzen duguna emozioz hornitzera garamatzate. Hori inkontziente garen neurrian bakarrik lor dezakete; beraz, kontziente izan gaitzen.

Zenbat denbora igaroko duzu pentsamendu gidatu horren mende? Ez al zara konturatu zerbait lortzeko ahalegina dela zorientasuna ematen dizuna? Zuk sortu (pentsatu), ekoiztu (emozionatu) eta erabakitzen duzu egoera batek sortutako pentsamendua noiz aurrera eraman edo eten, zeren eta zuk erabakitako pentsamendu horren emozioek asebetetzen zaituzte. Besteek, emanak datozenek, eroso sentiarazten zaituzte, triste, ahul eta mendeko egiten zaituzte. Esmatzeko eta egiaz konturatzeko, egia eta argia behar da. •

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Aitaren, semearen...

Aurten 14 urte bete dira gure lehen seme Ekaitz jaio eta hil zela. Danbatekoa izan zen, ikaragarria, azaldu ezina. Erabateko ezustekoa izan zen, gainera. Haurdunaldietan eta erditzeetan umeak galtzeko arrisku handia dago oraindik ere, baina gehienetan ez gara inguruan gertatzen denaz ohartzen eta ez gara jabetzen guri ere gertatu ahal zaigula. Hala, oso gutxi hitz egiten da horretaz, baina hor dago eta, zoritxarrez, ez gaude horretarako prestatuta.

Baina, zorionez, galera horren dolua lehenengo intuizioz eta gero laguntza profesionalarekin landu genuen. Horri esker mina arindu dugu, Ekaitz beti egongo da nolabait gurekin, eta berari esker etorri ziren gero Markel eta Unax.

Gainera, emagin bati esker antzeko esperientziak bizi izandako familia gehiago ezagutu genituen, eta itzela izan zen, min eta hutsune horren erdian, beste inork ez bezala, elkar ulertu genuelako eta elkarri lagundu geniolako. Are gehiago, familia haiek, indarrak batuta, jakinda tamalez halako heriotzak gertatuko direla, erabaki genuen beste familia batzuei laguntzea. Hala, “guretxikixak” blog-a sortu genuen, non hasieratik argitu genuen gu ez ginela ez profesionalak ez adituak, baizik eta horrelako esperientziak bizi izan ditugun familiak, ulertuko zaituztenak. Blog horren bitartez eskaini genizkien erremintak, laguntza, belarriak eta aholkuak nahi zuten guztiei. Familia askorekin batu ginen eta eman genien babesa. Eta bloga, nahiz eta aspaldi ez dugun gaurkotu, ikusgai dago hemerroteka eta eduki guztiekin. Garai berean gure eskualdeko ospitalean halako heriotzetarako protokolo bat ezartzea lortu genuen; bide batez, profesionalek nola jokatu jakin zezaten eta, ondorioz, hurrengoan sufrimendua ahal den heinean arintzeko.

Laguntzeko helburua izateaz gain, landutako guztia bazen gure umeen heriotzak ikusarazteko eta gizarte

tean presenteago egoteko modu bat; izan ere, txiki-txoen heriotza horiek oharkabean gelditu ohi dira, eta horiek ere behar dute beraien lekua gure bizitzetan, historian eta errealitatean. Tamalez, oraindik ere, «izango duzue beste bat», «baina ez zen jaio ere egin...» eta antzekoak entzutea ohikoa da-eta.

Gerora, Iñaki Peña medikuaren ekimenez, eta Arteman-ekiko hartu-emanarekin, azken urteetan gauzatu da heriotza eta doluari buruzko trilogia oso interesgarria (“Aulki Hutsak”, “S(u/a)minetik bakera” eta “Mendian hil hirian hil” lanek osatzen dutena) heriotza eta galera ikuspuntu eta testuinguru desberdinetatik behatzen dituen.

Halako ekimenei esker gero eta gehiago hitz egiten da gizartean heriotzaz eta doluaz –eskerrak!–, baina horien artean heriotza perinatalak jarraitzen du iza-

Halako ekimenei esker gero eta gehiago hitz egiten da gizartean heriotzaz eta doluaz –eskerrak!–, baina horien artean heriotza perinatalak jarraitzen du izaten ezezagunena, eta horren baitan, hain justu, aiten doluak du baimen txikiena

ten ezezagunena, eta horren baitan, hain justu, aiten doluak du baimen txikiena. Agian kulturalki gizonoi ezarri zaizkigun ezaugarriengatik, baina badirudi aiten dolua ez dela existitzen eta, ondorioz, gizarteak askotan ez digu baimentzen.

Hala bada, Gari eta Ekai semeak hil zitzaizkion Anakotz Lasarteren ekimenez, “Aitatxo” izeneko dokumental zirraragarria gauzatu berri da, oraingoan ere Arteman-ekiko hartu-emanen, aiten samina eta dolua baimendu eta ikusarazteko asmo sutsuarekin. Ikaragarria da Fernando, Igor, Mikel eta Anakotzen testigantzak entzutea. Eskerrik asko izandako kemen eta ausardiagatik! •



Gorka JULIO Euskal Herria Digitaleko kidea

Algoritmoak bizi gaitu

Algoritmo” hitzak zuen zentzu ia soilik teknikoa galdu du eta hitz poli-semiko bilakatu da. Askorentzat, “algoritmoa”, generikoan, gaitz guztien sorburua da edo “algoritmoek” kontrolatzen gaituzte. Beste batzuentzat, bizitza errazten digu “algoritmoak”, eta gauzak errazago bilatu edo egiteko aukerak ematen dizkigu. Baina, zergatik hartu du hitz horrek hainbesteko garrantzia gure bizitzetan? Bada, algoritmoek gure bizitza markatzen dutelako.

Algoritmoak arau edo agindu segida bat besterik ez dira. Zehatz-mehatz, bata bestearen atzetik modu jakin batean exekutatuko diren aginduak dira. Konplexuagoak edo sinpleagoak izan daitezke, eta haien barrunbeak (kodea) ezagutzeko aukera izango dugu edo ez, baina behin aginduak exekutatuta, emaitza jakin bat ematen duen makina batek sortutako emaitzak dira. Algoritmoek, horrela azalduta, sinpleak dirudite, baina gure bizitzetan txertatuta, gure parte bihurtu dira: izan erosketak gomendatzeko, irakurri behar duguna aukeratzeko, eguraldia ezagutzeko edota hurrengo oporrak planifikatzeko. Algoritmoak leku guztietan daude.

“Algoritmo”, letra larriz hasita nahi bada, beste zerbait esateko erabiltzen hasi gara. Batzuetan “Algoritmoa” erabiltzen dugu izaera jainkotiar moduko zerbait adierazteko, izan onerako edo txarrerako: «Algoritmoak kontrolatzen gaitu» edo «Algoritmoak salbatuko gaitu». Proposamen zehatza da horrelako adierazpideak baztertzea. Algoritmoek ere jabeak dituzte, eta norbaitek diseinatu, programatu eta exekutatzeko dituzte; gizatalde batek, normalean. Beraz, albora dezagun izaera ahalguztidun hori.

HITZETIK HARAGO

Hitzetik harago, ezin uka algoritmoek presentzia handia duten gizarte honetan eragin zehatzak iza-

{ euskal herria digitala }

ten ari direla. Gizakiak berarentzat eroso dena onartzeko joera du, eta hor ere sartzen da zenbait erabaki delegatzeko gogoia edo beharra. Algoritmo batzuek horretan laguntzen digute, baina hori gure izaera indibidualean zein kolektiboan eragina izaten ari da. Gaiak ertz asko ditu, eta ikuspuntu negatiboak bakarrik aipatzea mugatzaila izan daitekeen arren, gaurkoan hor jarriko dugu arreta: nola eragiten digute algoritmoek? Beldurra sartzeko gogorik gabe, baina arazoez jabetzeko helburua dauka artikuluak.

Erantzuna gero eta argiagoa da: ez dira neutroak, ezta kaltegabeak ere. Sare sozialetako iragazkietatik hasi eta lan-aukeretako gomendioetara arte, algoritmoek erabakiak hartzen dituzte gure ordeiz –eta ez beti modu bidezkoan–. Are gehiago, algoritmoen inpaktua ez da bera guztion-

tzat: gazteek, emakumeek, arrazializatutako gorputzek eta langileek arrisku bereziak pairatzen dituzte. Artikulu honetan lau dimentsiotan aztertuko dugu algoritmoek gudan duten eragina.

GAZTERIA: IKUSGAITASUN TOXIKOA ETA ONGIZATEAREN MEHATXUA

TikTok, Instagram, YouTube eta antzeko plataformek edukiak nola iragazten dituzten ez da kasualitatea: algoritmoen lana da. Azken ikerketa baten arabera, TikTok-ek edukien ikusgaitasuna erregulatzen du, eta erabiltzaile bat eduki misoginoarekin elkarrekin-tzan hasten denean, horrelako mezuen presentzia lau aldiz handiagoa bihurtzen da oso denbora laburrean. Horrek gazteen iruditeria eta harreman-moduak eraldatzen ditu, eta, askotan, osasun mentalari kalte egiten dio.



Algoritmoak arau edo agindu segida bat besterik ez dira. GETTY IMAGES

Oraindik gurean hainbeste gertatzen ez bada ere, zenbait ikastetxetan erabiltako algoritmo prediktiboek –ikasleen arrakasta neurtzeko asmoz– huts egiten dute maiz. Huts horiek aurreiritziak erreproduzitzen dituzte, ikasle batzuen potentziala gutxietsiz eta estigmatizatuz, adibidez.

EMAKUMEAK ETA GORPUTZ ARRAZIALIZATUAK: DISKRIMINAZIO AUTOMATIZATUA


Algoritmo askok diskriminazio estrukturalak erreproduzitzen dituzte, nahiz eta aurpegi “teknologikoa” edo “neutrala” aurkeztu. Adibidez, aurpegia ezagutzeko sistema automatikoek akats-tasa handiagoa dute emakume beltzen kasuan, eta, alderantziz, gizon zuriekin ia akatsik ez dute egiten.

Osasungintzan, arazoak are larriagoak dira. Algoritmo kliniko batzuek arrazaren arabera “egokitzen” dituzte diagnostikoak, eta horrek tratamendu gutxiago edo kalitate apalagoko arreta ekar dezake. Halaber, emakumeek –eta bereziki emakume arrazializatuak– euren mina gutxietsita ikusten dute sistema horietan. Ez da errore tekniko hutsa: botere-harreman zaharren isla digitala da.

LANA ETA OSASUN MENTALA: NEKEA ETA AUTOMATISMOAREN ALIENAZIOA

Tresna hauek gero eta presenteagoak dira lan-munduan ere: lanbideak gomendatzen dituzte, produktibitatea neurtzen dute eta langileen portaera ebaluatzen dute. Frogatu da zenbait sistema gomendatzailek, adibidez, emakumeenganako diskriminazioa erreproduzitzen dutela beren gomen-dioetan; emakumeei aukera gutxiago eskaintzen dizkiete, aukera-berdintasuna urratuz.

Franco “Bifo” Berardi filosofo eta aktibista italiarrak azaldu bezala, algoritmoek ez dute soilik lanaren antolaketa aldatzen, gure barne bizitza ere baldintzatzen dute. “Arimaren alienazioa” aipatzen du, lan kognitiboa eta digitala erritmo eta zirkuitu algoritmoetan sartzen da, eta horrek antsietatea, estresa eta nekea eragiten ditu.



Gure bizitzan txertatu dira algoritmoak eta gure erabakietan eragina izan dezakete. GETTY IMAGES

Zabalago, Berardi dio algoritmoek gidatutako ingurune digitalak mutazio kognitibo eta afektibo sakona eragin duela gizakiongan: arreta sakabanatu eta etena bihurtu da, hizkuntza sinplifikatu eta bortitzago bilakatu da, eta desirak automatizatuta datoz, aurreikusi daitezkeen bideetatik. Horrek guztiak subjektibotasuna eta komunitatea ahultzea dakar berarekin, esfera publikoaren desagerpenarekin eta ekintza kolektiboaren paralisi emozionalarekin batera. Gainkarga informatibo eta estimulu fragmentario hori irudimena, hausnarketa eta etorkizuna asmatzeko gaitasuna urratzen ari dela baieztatzeraino iritsi da Berardi.

Algoritmoak ez dira neutroak, ezta kaltegabeak ere. Sare sozialetako iragazkietatik hasi eta lan-aukeretako gomendioetara arte, algoritmoek erabakiak hartzen dituzte gure ordez

Osasungintzan, arazoak are larriagoak dira. Algoritmo kliniko batzuek arrazaren arabera «egokitzen» dituzte diagnostikoak, eta horrek kalitate apalagoko arreta ekar dezake

OSASUN-SISTEMAK ETA ALGORITMO KLINIKOAK: ARRISKU ETIKOAK

Zenbait ospitale eta osasun-zentrok algoritmoak erabiltzen dituzte gaixoen arriskua neurtzeko, baliabideak hobeto banatzeko helburuz. Baina ikerketa batek erakutsi du sistema horietako batzuek baliabide gutxiago esleitzen dietela paziente beltzei adibidez, nahiz eta haien egoera klinikoa antzekoa izan zuriekin alderatuta.


Arazoa da algoritmoek iraganeko datuetan oinarritzen direla, eta datu horiek jada baztertzailak badira, emaitzek ere bazterketak erreproduzituko dituztela. Osasungintzan, hori kalte larriak sortzen dituen arazo larria da.

ZER EGIN?

Ezinbestekoa da algoritmoak garatzerakoan ikuspegi etiko eta interseksionala txertatzea. Ez da nahikoa datu batzuk kentzea edo “doikuntzak” egitea. Behar dira, algoritmoen diseinuan eta ebaluazioan, parte-hartze komunitarioa, gardentasuna eta kontuak emateko mekanismoak.

Berardiren hitzetan, «etorkizuna irudikatzeko gaitasuna berreskuratu» behar dugu, gure subjektibotasunaren kontrola algoritmoen esku ez uzteko, eta teknologia gizakiaren zerbitzura jartzeko ausardia politikoa garatu. Badira horretan lanean ari diren zenbait erakunde ere. Horien artean, interesgarri bat: adalovelaceinstitute.org

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

Nondik

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Gure presentziak berezi egiten ditu momenturik arrunte-nak: paseatzea, eguneroko lana, liburu baten pasarte bat irakurtzea edo hurrekin jostatzea. Une horietan ez gara esperientzia horren kontra ari, ezta ekintza hori erabiltzen ere emaitza bat lortzeko. Gure buruarekin horrela bat egiten dugunean, oraina luzatu, hobetu, berritu eta sakondu egiten da. Ekintzen edukia berbera da, gauza bat aldatzen da bakarrik: nondik egiten ditugun. “Nondik” hori aldatzen denean, guztia aldatzen da.

Monica Cavalle filosofoak dioenez, poztasuna baldintzarik gabea dela frogatzen du horrek. Pozik egon gaitezke motiborik gabe, eta edozer izan daiteke

pozteko arrazoi. Sarri, kontent egoteko baldintzen bilaketan itsutzen gara, ordea, gauzak nondik egiten ari garen atzenduta. Gainera, gure gogo aitzinera eta gibelera doa etengabe, oroitzuz eta aurrea hartuz, bilatuz adina ihes eginez. Ondorioz, oraina da eskapo egiten diguna. Oraindik ez den zerbaitera iristeko bide huts bilakatzen da, edo tinko atxiki behar dugun une galkor.

Momentuak gogo biziz ahitzeko saiakera urtero egiten dut oporretan, bereziki itzulerako atzera-kontaktarekin hasten naizenean: azken bainua, azken txangoa, azken izozkia, azken afaria eta gaua... eta, ahal bada, egonaldiari egun bat luzatu. Horrek berak ez dit uneak ongi bizitzen uzten. Cavalleren arabera,

atxikitzeko irrika dagoenean ez dago presentziarik.

Bertze aldean dago haurraren oraina bizitzeko modua. Esku batekin begi bat igurtziz sartu da gaur goizean ere salan. Atea itxi, eta lurrean sakabanatutako puzzlearen pieza batzuk jarri ditu. Segidan, espazio-ontzia aireratzera doala abisatu digu eta bertara eraman gaitu, ohantzera. Burukoa da aulkia. Bera pilotu eta ni kopilotu. Eguzkitik hasi gara esploratzen. Sortzen ari den planeta bisitatu dugu, eta etorkizuneko bizileku gisa irudikatzen ari diren Marte. Botoi batzuei emanez planetak lekuz mugitu ditu. Eta, modu harrigarrian, jolasean sartuz eta sinetsiz, deus ez zegoen lekuan nik ere unibertsoa ikusi dut. •

Zauria

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Zauriak egiten ditugu maiz, baldarkeria eta istripuen eraginez gehienetan. Tiritu eta medikamentuekin, ez bada ebakuntza bidez, baina sendatu egiten gara medikuen eskuetan. Zauria orbaindu ahala, ordea, ahaztu egiten dugu, eta hurrengora arte, hurrengo istripura arte...

Zauriak egiten dizkiogu elkarri maitasunean oinarrituta eraiki ziren harremanetan; zauri sendaezinak gehienetan, betierekoak. Zainak odolez bor-bor izan genituen bikoteak, edo oraindik ere bietako batek horrela daudela uste denean, orduan, orduan harremanaren alde bakarreko etenak sortutako urratuek eragiten dute zauririk sakonena, mingarria.

Min hori ez da estatikoa, ez konstantea, min horrek dantza makabro etengabea sastatzen dizkizu tripak iltzez eginitako bola herdoildua biraka balebil bezala, bira bakoitzean sabel paretak ebakitzen... zauria zauriaren gainetik zornatu arte.

Ez dago medikurik zorne hori etengo duenik ez zauria orbainduko dizunik. Norberak behar du izan sendagaia, zauri eta sendagai, inguruko babesarekin, baita, zergatik ez, jada gehienon bizitzatan naturaltasunez onartu ditugun psikologoaren laguntzarekin.

Bide luzea hasten da, baina ibili beharrekoa. Izan ere, min horrek baditu hainbat aurpegi: zer eta zergatik gertatu den ulertu ezinarena, zalantzez eta gal-

derez lehertzen ari denarena, onartu egin beharrarena, alboetara begiratu eta hutsunea, hotza eta bertigoia... ahul, hauskor.

Zauria eramaten ikasi egin behar da, dolua egin, onartu eta betiko zurekin kargatu bizkarrean itsatsitako motxila lez. Uste baino zama arinagoa irudituko zaizu. Une horretan irribarrea aterako zaizu.

Motxila eramatea onartu aurretik hutsunea betetzeko ariketa presazkoak egiten ditu askok, edonola, edonorekin, baina nago soilik une horretan, motxilaren pisua sentitzen duzunean eta gertatutakoa ongi barneratua duzunean, zaudela prest hurrengo harremanarekin asmatzeko. •



Olatz ARBELAIZ GALLEGO

Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Ikergazte: 10 urte teknologia digitalari ere ekarpenak egiten

Zuetako askok galdetuko diozue zuen buruari zer den Ikergazte. Eta zer ikusia du horrek informatikarekin? Bada lerro hauez baliatuko naiz horixe azaltzeko. Ikergazte UEUk antolatzaren duen kongresu bat da. Helburua ikerkuntzan ari diren gazte euskaldunek, jakintza arlo guztietakoek, nazioarte mailako lanak euskaraz aurkeztea, elkar ezagutzea, kezkak partekatzea eta sarea sortzea da.

Lehenengoa 2015ean izan zen Durangon eta bi urtean behin errepikatzen da. Azken edizioa izan berri da Bilbon eta ikertzaile apartak eta euskaraz komunikatzeko gaitasun handikoak izan ditugu bertan.

Dudarik gabe Ikergaztek euskarari ekarpena egin dio. Inguma datu basearen arabera, euskarazko produkzio zientifikoa nabarmen hazten da Ikergazteren urteetan. Baina zientziari ere egiten dio ekarpena dudarik gabe: lan asko bertan aurkezteko espreski sortzen dira, eta sortzen diren harreman eta ideiak ere etorkizuneko lanen oinarri dira.

Artikulu hau idazteko nire ikerketa partikularra egin dut; hamar urte hauetan mundu digitalari egin dion ekarpenaren argazkitxo, alegia. Horretarako, Ingeniaritza eta Arkitektura jakintza arloan argitaratutako lanen izenburuetan bilatu eta 60 lan inguru topatu ditut. Argazki mugatua, beraz, baina nahikoa baieztatzeko esparru digitaleko aurrerapen zientifikoa ere badakarrela.

Arlo zehatzei erreparatuz, asko hizkuntza-teknologiaren alorrari dagozkio: corpusak osatzeko teknikak eta semantika eta gramatikaren tratamendu automatikoak nabarmendu ziren lehenengo edizioetan, baina itzulpen automatikoa, ebaluatzaile automatikoak, kontra-narratiben sorkuntza automatikoa, eredu eleaniztunak eta ikusizko hizkuntza ereduak etorri dira geroago. Alor berean, medikuntzan euskaraz egin ahal izateko tresnak edo sare sozialak arakatu eta lurrikarak, euskal komunitatea, ideia gintza suizidak edota sentimenduak aztertzeke tresnak sortu dira. Hizketa teknologiarri erre-

paratuz gero, sintesi ahots pertsonalizatuak hobetu eta ahots-ahots itzulpena ere lortu da. Kantura pasatuz, ahots kantatua bertsolaritzara egokitzea eta bertso doinuak automatikoki sortzea eta BertsoBot dira aipagarri. Bot edo agente horiei gorputza jartzen dieten robotez ere aritu gara.

Adimen artifizialeko metodoetan aurrerapenak proposatu eta bestelako helburuetarako ere egokitu dira: gizarte ikerkuntzarako, web-elkarrekintza eta eZerbitzuen erabilera hobetzeko, giza-jardueren ereduak ikasteko edo neuroen dekapen-gaixotasunetan sexuaren eragina aztertzeke.

Behar bereziak dituzten pertsonen bizitza errazteko, industriako hainbat prozesu automatizatzeko, simulazioak egiteko eta ikasketa prozesuak hobetzeko ere sortu dira tresnak eta informatikaren irakaskuntzarako aurrerapenak proposatu dira.

Ordenagailuen egitura eta funtzionamenduan aurrera egitea dakarten ikerketak ere izan ditugu. Izan ere, fitxategi kudeaketa sistemak, partizioen denbora errealeko konfigurazioak, sistema txertatuak eta sare-teknologiak ere ez dira aparte geratu, eta, azken edizioetan, zibersegurtasuna lantzen duten ikerketak ere izan ditugu presente, iruzurrak detektatzeko sistemak edo segurtasunera bideratutako sistema eragileak proposatu baitira.

Eta oraintxe galdera bat dut buruan: zein izango da hurrengo ekarpena? •



2017an Iruñean izan zen Ikergazte kongresua. Iñigo URIZ | FOKU

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. EUSKALTZAINDIA.

«VIZCAYTIK BIZKAIRA» ZARZUELAREN ESTREINALDIA

1895eko otsailaren 2an, igandez, “Vizcaytik Bizkaira” estreinatu zen Bilbon, Resurreccion Maria de Azkuek idatzitako hiru ekitaldiko zarzuela. Obrak euskal jendartearen espainolizazioa salatzen zuen, eskola “nazionalaren” eta soldadutzaren bidezkoa, eta eragin handia izan zuen. Ondorengo egunean, Bilboko “Euzkeldun Batzokija”-k omenaldi bazkaria antolatu zuen Azkueren eta zarzuelako aktoreen omenez. Sabino Arana, “Bizkaitarra” egunkariko zuzendaria, txundituta gelditu zen obrarekin, eta astekariaren bi zenbaki eskaini zizkion, urte bereko otsailaren 17an eta 24an argitaratuak. Otsailaren 24ko zenbakiko ohar batean, “Bizkaitarra”-k salatu zuen Espainiako gobernadoreak 200 pezetako isuna jarri zuela gobernuaren baimenik gabe bazkaria antolatzeagatik. Goiko argazkian eserita agertzen dira Sabino Arana Goiri, ezkerretik bigarrena; Felix Landaburu, hirugarrena, eta Resurreccion Maria de Azkue, laugarrena. Zutik, ezkerretik laugarrena, Galo Alvarez Arteta da. Gainerakoak zarzuelako aktoreetako batzuk dira.

045 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



MAURITANIA

Nomada sentiaraziko gaituen herrialdea

hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan
GARArekin
doan

eta gainera...

WHITSUNDAY
PARADISUAREN
DEFINIZIOA

MINNEAPOLIS
MINNESOTAKO
BIZITZAREN ERDIGUNE

HEGAZTIAK BEHATZEN
EUSKAL HERRIKO
ZENBAIT TXOKOTAN

THAILANDIATIK LAOSERA
ITSASOZ ETA
POLIKI

SAN BERNARDINO ALLE OSSA
ESKELETOZ APAINDUTAKO
KAPERA

Elkarrizketa Antonio Ortega **Egin planak** 'Lorategi bat soinean', loreen moda ehungintzan; Irailekoak poesia jaialdia; Maitaldia
Munduan pasieran Machu Picchu, arriskuan; Leshango Buda erraldoi eta aldakorra; Lençóis Maranhenses, dunak eta aintzirak;
Dark Hedges, enbor kurbatuen korridorea; 'Living Water': uraren boterea, artelanen bidez...

